

KOSTU EGITURA

Hasierako inbertsio bat egin beharko dugu proiektua martxan jartzeko, eta honek, garraio lanetarako erabiliko dugun *Citroën Berlingo Largo* furgonetaren ordainketa (11.990€), webgune/online-dendaren ekoizpena (X€) edota domeinuaren 5 urteko jabetza (104,95€) bilduko ditu bere baitan, besteak beste.

Behin proiektua martxan jarri ondoren, enpresa gehienetan bezala, gure enpresaren kostuak ere kostu finko eta kostu aldakorretan banatuko dira. Lehen multzoari dagokionean, hileko 850€ko kostua izango duen lokal bat alokatuko dugu, urteko 800€ ordainduko ditugu ibilgailuaren eta lokalaren aseguruaren artean, eta batz bestea 600€ urteko udal-tasa desberdinen artean.

Kostu aldakorrei dagokienean, berriz, uraren gaineko kontsumoa (50€ inguru hileko), argindarraren gaineko kontsumoa, telefonia eta internet zerbitzua, furgonetak behar izango duen erregaia (150€ inguru hileko), eta bulegoko material korrontea (10€ inguru hileko) izango dira nagusiak.

GuZumen gastuak minimizatzeko eta irabaziak areagotzeko modu bat banaketa eraginkorra gauzatuz izango da. Honetarako proposamena bidalketa guztiak bidaia bakarrean egitea da, ongi planifikaturiko ibilbide bat jarraituz. Bidalketak efizientziaz gauzatuz, diru asko aurreztu dezakegulakoan gaude.

Diru-sarreraren eta kostuen artean inoiz tarterik balego, hor kokatuko genituzke proiektua gauzatuko dugun sei kideon ordainsariak. Komunitatearen mesederako sortu dugun proiektua izanik kontziente gara gure etekin pertsonalak ez direla helburua, eta beraz, aukera balego soilik jasoko genuke liberatu moduan, proiektuari eskeinitako orduen arabera proportzionala litzatekeen soldata.

Azkenik, gure egitasmoak izan dezaken hedapenari dagokionean, herri mailako merkatuan oinarrituta egonik, behin Zumaian egonkortzea lortu eta modelo beste eremu geografiko batzuetara esportatzea litzateke aukera nagusia; hau da, beste herrietan zerbitzu berdina eskaintzea. Dena den, horretarako azpiegiturak hedatu beharko genituzke gure dimentsioa biderkatuz: lokal berriak eskuratu herri-gune berrietan eta banaketa baliabide berriak gehitu, langile gehiago kontratatu, harreman-sare berriak josi, e.a.

Dena den, lehen esperientzia honekin lortutako ezagutzez baliatu eta aztertuko genituzke aukerak, abiapuntua ezin baita ahaztu: komunitatea aberastuz gaur egungo baliabideak tokian-tokiko merkatarien zerbitzura jartzea da nahi duguna.